



INGURUMEN IKUSKAPENEN JARDUEREN MEMORIA URTEA: 2017

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
Administrazio Unitatea: Ingurumen Ikuskapena

Aurkibidea

1.- Sarrera.....	2
2.- Proiektuen zerrenda.....	2
2.1. Proiektua: IPPC 2017 segimendu-ikuskapena.....	2
2.2. Proiektua: 2017 IPPC ez diren jardueren ikuskapena.....	6
2.3. Proiektua: ILEen ikuskapena.....	7
2.4. Proiektua: Hondakinen kudeaketa kontrolatzea.....	8
2.5. Proiektua: Hondakinak lekualdatzea.....	9
2.6. Proiektua: Lurzoruak – baimendutako hondeaketak.....	10
2.7. Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa.....	10
2.8. Proiektua: Pasaiako Badiaren leheneratzea sustatzea.....	11
2.9. Proiektua: Industria-guneen segimendua.....	12
2.10. Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa.....	12
3.- Emaitzak.....	15
4.- Ondorioak.....	16



1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuak 2017 ekitaldirako zehaztutako ikuskaritza-programari lotuta egindako jarduketak.

2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasotzen dira 2017 ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzei ateratako ondorio nagusiak.

2.1. *Proiektua: IPPC 2017 segimendu-ikuskapena*

Erreferentzia: 2017-01

2.1.1. Jarduketak

262 ikuskapen egin dira, eta horietatik 112 enpresetan egin dira, hau da, aurrez aurrekoak izan dira eta 150 dokumentu bidezkoak izan dira, eta, funtsean, ingurumen-zaintzarako planak eta errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatu dira.

Programatutako enpresetako bost itxita zeuden. Horietako batek jarduera lekualdatu du eta beste bat EEE egoeran dago.

Ikuskatu beharreko enpresetatik 19k urteko ikuskapena egin behar dute, 47k bi urtean behingoa eta 45ek hiru urtean behingoa.

Ikuskapen bakoitzari zegozkion aktak egin dira, eta bidali zaizkie enpresei ikuskapen horiekin lotutako txostenak eta errekerimenduak, hala zegokienean.

Era berean, Sailaren webgunean argitaratu dira aurrez aurre egindako ikuskapenei dagozkien txostenak.

2.1.2. Ondorioak

Programazioaren % 100 bete da, eta ikuskapena enpresek ingurumen-esparruan duten arriskuaren arabera egin da.




Enpresen betetze-maila hobetu da, eta betetze-maila handia, hau da, altua edo ertain-altua duten enpresen kopurua igo da, 90 enpresa baitira guztira. 18 enpresak dute betetze-maila ertaina eta 3 enpresek betetze-maila ertain-baxua. Nabarmendu behar da ez dagoela enpresarik betetze-maila baxua duenik.

Arriskuen ebaluazioari dagokionez, nabarmen jaitsi da arrisku-indize altua duten eta urteko ikuskapen-aldizkakotasuna (arrisku-kategoria) ezarria duten enpresen kopurua: 21etik 19ra.

Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzen dela. Araudi horretan, era berean, ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen da jarduera bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

IPPC jardueren ikuskapen-proiektua - Datu orokorrak

ENPRESAK, GUZTIRA	EZ-BETETZERIK GABE	EZ-BETETZEEKIN
111	32	79






IKUSKAPENETAKO EZ-BETETZEEN KOP. / MOTA

EZ-BETETZEAK, GUZTIRA	Garrantzi gutxiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
207	196	11	0	0

MOTA BAKOITZEKO EZ-BETETZEEN KOP.




Ikuskatutako enpresetarako mota bakoitzean detektatutako ez-betetzeen kopurua agertzen da, ez-betetzearen larritasunaren arabera zehaztuak.

ARRISKU-INDIZEA

GUZTIRA	1. AI	2. AI	3. AI	4. AI	5. AI
111	10	26	55	19	1

ARRISKU-INDIZEA




Enpresen kopurua adierazten da arrisku motaren arabera: gutxieneko AI=1 eta gehieneko AI=5



ARRISKU-KATEGORIAREN DATUAK

GUZTIRA	1. AK	2. AK	3. AK
111	19	47	45

ARRISKU-KATEGORIA




Egindako azken ikuskapenaren ondoren, ikuskapen-aldizkakotasuna arriskuaren arabera zehaztu den enpresen kopurua adierazten da. AK=1 urteko aldizkakotasuna, AK=2, bi urtean behingoa eta AK= 3, hiru urtean behingoa

BETETZE MAILA

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
111	69	22	17	3	0

BETETZE MAILA



Enpresen betetze-mailaren arabera ikuskatutako enpresen kopurua adierazten da



2.2. Proiektua: 2017 IPPC ez diren jardueren ikuskapena

Erreferentzia: 2017-02

2.2.1. Jarduketak

IPPC ez diren jarduerak hala Ikuskapen Zerbitzuko langileek nola kontratatutako Ingurumen Lankidetzarako Erakundeek (ILE) ikuskatu dituzte.

Ikuskapen Zerbitzuak 17 ikuskapen egin ditu eta kontratatutako ILEek 135.

Betetze-maila hau izan da: Altua: 25 enpresa (% 17); ertain-altua: 26 enpresa (% 17); ertaina: 43 enpresa (% 28); ertain-baxua: 39 enpresa (% 26) eta baxua 19 enpresa (% 12)

Era berean, indarrean dagoen legeriarekiko ez-betetzeak daudela egiaztatu den enpresei dagokien errekerimendua bidali zaie.

Halaber, aurreko urtean egindako ikuskapenen segimendua egin da enpresen betetze-maila igotzeko xedearekin.

2.2.2. Ondorioak


Erraz bete da programatutako 120 enpresa urte horretan ikuskatzeko helburua. Larri edo esanguratsu gisa sailkatutako desbideratzeak zuzentzea lortu da eta, era berean, aurreko urtean ikuskatutako enpresetan betetze-maila baxua edo oso baxua izatea saihestu da.



BETETZE MAILA

GUZTIRA	BM ALTUA	BM ERTAIN – ALTUA	BM ERTAINA	BM ERTAIN – BAXUA	BM BAXUA
152	25	26	43	39	19

BM = BETETZE-MAILA



2.3. Proiektua: ILEen ikuskapena

Erreferentzia: 2017-03

2.3.1. Jarduketak

Aurreko urteetako ikuskapenetan, kontrolatu egin ziren EAEko atmosferaren esparruan jarduten duten ILEak, eta, aurreko, isurketen kontrolaren arloan gehien jarduten duten ILEen ikuskapena lehenetsi da. Aurrez abisatu gabe bi ikuskapen egin dira guztira, eta emaitza ona izan da.

Era berean, ILEen ikuskapenaren berme gisa dokumentazio hau egin da:

- Neurtutako kutsatzaile nagusien neurketari buruzko laburpen-fitxak (zehazki, 8 fitxa).
- Berme-gida ILEak ikuskatzeko, aldi bateko desbideratzeak osatuz eta tipifikatuz.
- Ikuskapenaren ondorengo desbideratze eta jarduketa administratiboak ebaluatu eta sailkatzeko proposamena.



2.3.2. Ondorioak

ILEei egindako ikuskapenen emaitza ona izan da, zeren ILEei helarazi beharreko helburua bete da, hau da, beren jarduera Administrazioak gainbegiraten duela. Nabarmendu behar da ez dela desbideratzerik detektatu gauzatutako ikuskapenetan. Era berean, ikuskatzeko behar den berme-dokumentazio gehiena landu da. Hurrengo ekitaldian sistema berberari eutsi nahi zaio.

2.4. *Proiektua: Hondakinen kudeaketa kontrolatzea*

Erreferentzia: 2017-04

2.4.1. Jarduketak

Proiektuak honako eremu hauek bildu ditu: Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen planta mugikorrek egindako kudeaketa kontrolatzea; erabiltzen ez diren ibilgailuen baimendu gabeko (aurrerantzean, EEI) kudeaketa-puntuak identifikatzea eta TEEHen kudeatzaileek tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko hartu beharreko neurriak ikuskatzea.

Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen planta mugikorrak.

Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko baimendutako 10 instalazio mugikor ikuskatu dira, 112/2012 Dekretuaren, ekainaren 26koaren, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren, aldean, zein mailatan bete diren egiaztatzeko.

EEIen kudeaketa kontrolatzeko proiektua.

Proiektu honen helburua da kontrolatzea operazio horretarako baimenik ez duten kudeatzaileek egiten duten EEIen kudeaketa, ikuskapen-jardueren eta ingurumen-diziplinaren bidez. Legez kanpoko EEIen balizko tratamendu-zentzoei buruzko informazioa biltzen jarraitu da.

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen proiektua (TEEH)

Zeharkako proiektutzat jotzen da Sailburuordetzan. Helburua da Sailburuordetzak emandako baimenak 110/2015 Errege Dekretura egokitzea. 2017an zehar beste unitate administratiboek ez dute Ikuskapen Zerbitzuaren beharrik izan baimenak egokitzeko ikuskapenean laguntzeko.



2.4.2. Ondorioak

Eraikuntza- eta eraipen-hondakinak (EEH) kontrolatzeko proiektua.

Nahiz eta jarduketa ez den egokitu hasieran idatzitako proiektura, programazioaren % 100 bete da, 2017an zehar hasieran programatutako ikuskapen kopurua egin baita.

EEIen kudeaketa kontrolatzeko proiektua:

Programazioaren % 20 bete da. Beharrezkotzat jotzen da 2018an proiektu hau gauzatu behar den birplanteatzea.

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen proiektua (TEEH).

Proiektua zeharkakoa denez, eta baimentzeko eta 110/2015 Errege Dekretura baimenak egokitze arduraren unitate administratiboek ez dutenez behar Ikuskapen Zerbitzuaren laguntzarik, ezin dugu zehaztu proiektuaren betetze-maila.

2.5. Proiektua: Hondakinak lekualdatzea

Erreferentzia: 2017-05

2.5.1. Jarduketak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 660/2014 Erregelamendua, hondakinak lekualdatzeari buruzko 1013/2006 Erregelamendua aldatzen duenak, 50. artikuluan 2 bis zenbaki berri bat sartu zuen eta, horren arabera, estatu kideek bermatu behar dute, euren lurralde geografiko osoan, ezarri direla plan bat edo gehiago, bai bereizita bai beste plan batzuetan argiki zehaztutako zati gisa, hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketen ikuskapenak egiteko.

Izan ere, 2011-2018 ikuskapen planak bere helburu estrategikoen artean jasotzen du hondakinen kudeaketari buruzko araudia bete behar dutela kopuruagatik edo arriskugarritasunagatik ingurumenerako arrisku handiagoa dutenek; 2011-2018 Ikuskapen Plana aldatu da berariaz txertatzeko EBk eskatzen dituen hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeen ikuskapenak.

2017. ekitaldian, EAEko operadore zenbaitek egindako hondakin-garraioen 8 ikuskaritza espezifiko egin dira, eta 6 ikuskaritza Bilboko portuan –iragaitzazko hondakinen garraioa-. Halaber, hondakin mugaz gaindi erooten dituzten operadoreen zerrenda eguneratu da; IPPC duten 104 instalazioren eta IPPC ez duten 13 instalazioren informazioa bildu da.

2017. ekitaldian, indarreko legeditik eratorritako betekizunak mugaz gaindiko hondakin-garraiolariei jakinarazten jarraitu dugu.



2.5.2. Ondorioak

Programazioaren % 100 bete da, eta operadoreetan programatutako ikuskapen guztiak egin dira. Bestalde, nahiz eta ez den ikuskapenik egin errepideetan, Portuan hasieran programatutakoak baino 5 ikuskapen gehiago egin dira; beraz, uste dugu iragaitzazko hondakinak era egokian kontrolatu direla.

2.6. *Proiektua: Lurzoruak – baimendutako hondeaketak*

Erreferentzia: 2017-06

2.6.1. Jarduketak

Inbentarioko kokaguneen kontrol-beharren bilduma osatu du horien gaineko izapidetze-eskumena duen unitate administratiboak, eta inbentarioko kokaguneetan jarduteko prozedura egituratu da, hondeatze-lanei buruzko ebazpenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

2.6.2. Ondorioak

Programazioaren % 25 bete da. Uste da tokian bertan egiten diren ikuskapenen fasea birplanteatu behar dela hurrengo ekitaldietarako.

2.7. *Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa*

Erreferentzia: 2017-07

2.7.1. Jarduketak

Ingurumen-arrisku handiko 2 enpresa bisitatu dira. Era berean, errekerimendu 1 igorri da eta hondakinak kontrolatzeko eta kudeatzeko ekintza subsidiario bat egin da. Zehazki, ikuskatutako enpresetako batek hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimena ematen duen abala egin da hondakinak kentzeko eta garbitzeko eta bere jardueraren lurzoruak aztertzeko.

2.7.2. Ondorioak

Oro har, ezarritako helburuak bete dira eta ikusi da zailtasun handiagoak daudela egoera zuzentzeko arrisku handiko eta konkurtso-prozeduran likideziarik gabeko kasuetan.



2.8. Proiektua: Pasaiako Badiaren leheneratzea sustatzea

Erreferentzia: 2017-08

2.8.1. Jarduketak

Hainbat erakunde koordinatu dira mahai teknikoaren eta mahai politikoaren sei hilez behingo hainbat bileretan izateko.

Pasaiako Portuan egindako jardueri dagokienez, hainbat erakundetara jasotako kexak sartu dira. 2017an, guztira, 13 kexa jaso dira, 2016an (19) jasotakoak baino gutxiago.

Mahai teknikoak egindako hainbat bileretan identifikatutako 44 ekintzetatik ikus daitezke 19 egin direla, 22 egiten hasi direla eta 3 gelditzen direla hasteko.

Aurrerapen handia egin da alderdi hauetan: saneamenduan, orokorrean, eta, partikulari, Portuko Agintaritzaren hainbat eraikin biltodira konektatzen, gainezkabideen garbiketan eta balizko isurien ezagutzan eta Txingurri erreka egiten diren zenbait isuri hobetzen.

Pasai Donibaneko saneamendua gauzatzeko proiektua amaitzea lortu da. Halere, zehazteke dago garrantzitsuena, hau da, proiektuaren gauzatzea eta obraren amaiera.

2.8.2. Ondorioak

Garrantzitsua da hainbat erakunderekin koordinatuta egindako lana. Zehaztu egin behar da nork finantzatuko duen Pasai Donibaneko saneamendu-proiektua obraren gauzatzearekin amaitu ahal izateko.



2.9. Proiektua: Industria-guneen segimendua

Erreferentzia: 2017-09

2.9.1. Jarduketak

Arabian 3 bisita egin dira eta Gipuzkoan 2 bisita. Era berean, Itziar-Debako Industrialdeko administratzaileari jakinarazpen bat bidali zaio.

2.9.2. Ondorioak

Egokiak ez diren hondakinen biltegiratzeak, batez ere aire zabalean, baimendu gabeko/jakinarazitako kutsatzaileen isurketak detektatu dira. Lortutako zerrenda IPPC ez diren ikuskapen-proiektura eramango da. Ingurumeneko gorabeheraren bat duten 8 enpresa detektatu dira, 5 Gipuzkoan eta 3 Araban.

Proiektu honi dagokionez, gogoratu behar da lehenengo urtea dela eta urte anitzeko programazioa duela.

2.10. Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa

Erreferentzia: 2017-10

2.10.1. Jarduketak

Honetan guztian egin da lan: jarduketa- eta kudeaketa-prozedurak berrikusten; abisuen kudeaketa-zerbitzua eskaintzeko beharrak aztertzen; kontratazio-pleguak lantzen; jarduketan segimendua egiten eta gainbegiratzen eta kontratazioaren efikazia egiaztatzen.


EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra 551 abisu kudeatu dira.




Hona hemen lurralde historikoaren araberako banaketa:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ABISU kop.	61	426	64



Eragin den ingurunearen eta lurraldearen araberako banaketa hau da:


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
AIREA	12	281	35
INGURUNE NATURALA	6	35	1
LURZORUA	33	56	15
URA	10	54	13





Ingurumen-ondoreen araberako banaketa hau da:

	Errepideko istripua	Airera eginiko isurketak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste arrazoiren bat
ARABA	4	7	1	4	9	2	20	9	5
BIZKAIA	8	68	13	201	11	14	47	46	18
GIPUZKOA	0	22	4	12	2	1	10	9	4



2.10.2. Ondorioak

EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuteko helburua bete da, 24 orduz.

Arruntzat jotzen dira Araban eta Gipuzkoan egindako abisuen kopurua eta ezaugarriak. Aipatzekoa da kexa kopuru handi bat Bizkaian egin dela eta aireari, zehazki usainei eta airerako isurketei eragiten direla. Analisia egin ostean, egiaztatu da batez ere industria-jardueraren gunek txiki batetik datozela. Jarduera horiek udalerrri hauetan daude banatuta: Abanto-Zierbenan (22 abisu), Muskiz (34 abisu), Ortuella (44 abisu) eta Trapagaran (50 abisu). Abisu eta kexa gehiago sor ditzaketela uste den enpresei segimendu berezia egin zaienez, gainerako udalerrietako kexen kopurua jaitسي egin da, Trapagaranen izan ezik.

IPPCren segimendu-ikuskapeneko proiektuen barruan, segimendu berezia egiten jarraituko da potentzialki abisu eta kexa gehiago sor ditzaketeten enpresei.



3. Emaitzak

Proiektuak

Proiektu-erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2017-01	123	% 100
2017-02	148	% 100
2017-03	5	% 40
2017-04	10	% 100
2017-05	10	% 100
2017-06	9	% 0
2017-07	Kualitatiboak	% 100
2017-08	Kualitatiboak	% 85
2017-09	6	% 83
2017-10	Ez da aplikatzen	Kualitatiboak

Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2017-01	112	262
2017-02	152	152
2017-03	5	5
2017-04	10	10
2017-05	10	10
2017-06	9	9
2017-07	2	2
2017-08	0	0
2017-09	6	5
2017-10	0	75
Guztira	306	530

Jarduketa guztiak

Proiektu kop.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.	Bisitadun ikuskapen kop.	Dokumentazi o bidezko ikuskapen kop.	Zaintzako ikuskapen kop.
10	306	530	306	224	13



4. Ondorioak

Ezarritako programazioa bete da, eta hainbat proiektutako ikuskapen ia guztiak egin dira.

Lehentasunezko proiektua IPPC instalazioen segimendua izan da berriz ere, eta gainerako proiektuak ikuskapen-unitatean eskuragarri zeuden baliabideen arabera gauzatu dira.

Nabarmendu behar da proiektu honetan hobekuntza ikusi dela, enpresen betetze-maila igo eta arrisku larrienak murriztu egin baitira, ingurumen-kudeaketa hobetzearen eta ingurumen-baimen integratuaren arau-haustek murriztu izanaren ondorioz.

IPPC ez diren jarduerak ikuskatzeko proiektua, jarduerak egiaztatzeko laguntza teknikoen babesarekin, betetze-maila on batekin garatu da. Proiektuetatik beste asko urte anitzekoak dira eta, horrenbestez, datozen urteetan garatzen jarraituko da.